



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

120. INFORMAZIO BULETINA

> 2017ko Martxo



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **PYME Ekimenak Gipuzkoako 388 enpresari mailegutan 43,2 milioi euro ematea ahalbidetzen du**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 989.279 euro jarri zituen PYME ekimenerako EGEF Funtsetatik etorritako zenbatekotik 2014-2020 aldirako. Horri Eusko Jaurlaritzak eta Administrazio Orokorrak Gipuzkoarentzat bideratutako ekarpena gehituz gero, guztira, 3,9 milioi eurokoa izan zen zenbatekoa. Finantza-tresnaren eragin biderkatzailea dela eta, zenbateko horrek lurraldeko ETE-*ei* kreditutan emandako 43,2 milioi euroko guztizko bolumena ahalbidetu du.

Eskuragarri dauden azken datuen arabera, Gipuzkoako 388 enpresari 426 mailegu eman zaizkie guztira; hau da, PYME Ekimenaren bidez zein Euskadin arreta emandako enpresetan mailegutan Euskadin emandako guztizkoen % 38 izan da. Horrez gain, Gipuzkoako enpresek Euskadin emandako maileguen guztizko zenbatekoaren % 42 eskuratu dute (43,2 M€; guztizkoa, aldiz, 103,6 M€-koa izan da).

Gipuzkoan emandako maileguen % 42 kapital zirkulatzailerako finantzatzera bideratu da, eta % 36 aktibo materialetako inbertsioetara. Bestalde, maileguen % 23 aktibo ukiezinetako inbertsioetara (% 4) edo beste helburu batzuetara (% 18) bideratuko da.

Emandako maileguen batez besteko zenbatekoa 101.000 eurokoa izan da, baina % 62ren kasuan, zenbatekoa 50.000 euro baino gutxiagokoa izan da. Mailegu ohikoena 30.000 euro ingurukoa izan da.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da inbertitutako funtsekin alderatuta, palanka-efektua handiagoa izan dela Gipuzkoan (11,1) Euskadi osoan (9,25) eta Estatuan (3,57) baino.

PYME ekimena

EGEF Eskualde anitzeko Programa Operatiboaren bidez, PYME Ekimenaren helburua Espainiako ETE-en finantzaketa-defizita gutxitzen laguntzea izan da.

Ekimena autonomia-erkidegoen bidez garatu da. Europako eskualde-politikaren baitan, EGEF funtsetako beren esleipenetatik eratorritako ekarpenak egin dituzte. Guztira, bideratutako funtsak 565 milioi eurokoak izan dira, eta maileguak emateko aurreikuspena 2.000 milioi euro baino gehiagokoa izan da.

PYME Ekimenean, administrazio ugarietatik (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta Estatu Administrazio Orokorra) eratorritako Euskadirentzako ekarpena 11,2 milioi eurokoa izan da eta finantza-tresna horren efektu biderkatzailea aplikatuta, orain arte, Euskadiko enpresetarako 103,6 milioi euroko guztizko zenbatekoa mobilizatu ahal izan da kreditutan.

Informazio gehiago:

http://www.eif.org/what_we_do/guarantees/sme_initiative/smei_spain/index.htm



> Nafarroa, Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdera atxikitzen ekitaldia gauzatu da

Joan den martxoaren 6an, orain arte Akitania Berria- Euskadi Euroeskualdea deiturikora Nafarroako Foru Komunitatea batzeko ekitaldi ofiziala gauzatu da Bordelen. Honenbestez, aurrerantzean Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea deituko da.

Nafarroa batu ondoren, ia bederatzita milioi biztanle izango ditu 100.000 kilometro koadroko azaleran, hau da, Europar Batasunaren ia % 2. Euroeskualdea Akitania Berriak zuzentzen du momentu honetan eta datorren urtean Nafarroak ordezkatuko du, 2018 eta 2019 urteetarako gidaritzat hartuz. 700.000 euroko aurrekontua du Euroeskualdeak.

Bileran, joan den urteko jardueren balorazioa egin eta 2017rako ekintza lerroak onartu dira.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/es/asamblea-de-eurorregion-nueva-aquitania-euskadi-navarra-bienvenida-navarra/>

> Diputazioak berezko gobernantza eredia azaldu du Pirinio Atlantikoen Kontseiluan

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gobernantza eredia azaldu die Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluko (DK64) 40 ordezkaritza politikori eta kargudunei, erakundeko arduradunek Foru Diputazioak arlo honetan hartutako neurriak ezagutu nahi dituzte, legegintzaldiaren hasieratik estrategikotzat hartu baitira. Imanol Lasa Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazio diputatuak, Goizeder Manotas Modernizazio zuzendariak eta Iker Goiria Kanpo Harremanetako zuzendariak osatu dute foru-ordezkaritza.

Gipuzkoako ordezkaritza Jean Jacques Lasserre DK 64-ko zuzendariak hartu du eta saioan, Max Brisson zuzendariordeak, Hendaiako alkate Kotte Ezenarro, Isabelle Lahore Funtzio Publikoko arduradunak, edo Denise Saint-Pé Hezkuntza arduradunak ere parte hartu dute.

Etorkizuna Eraikiz, Erakundearen Zuzentasun Sistema, Aurrekontu Irekien prozedura, Gipuzkoako Kontratazioen Zentrala, gardentasun eta desburokratizazio politika, eta Diputazioak zabalduko komunikabide berriak izan dira foru-ordezkaritzak azalduko gaien artean.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/-/aldundiak-bere-gobernantza-eredua-azaldu-du-pirinio-atlantikoetako-kontseiluaren-aurrean>



> **Diputazioak hamar milioi euro bideratuko ditu Gipuzkoako nazioartekotzea babesteko**

Diputazioak nazioartekotze estrategia berriaren ekintza-lerro nagusiak aurreratu ditu. Estrategia Gobernu Kontseiluak jadanik onartu duen Nazioarteko Proiektzio Planean (NPP) jasoko da eta 10 milioi euroko aurrekontua izango du, lurraldeak nazioartean duen posizionamendua indartzeko.

NPParen helburuak Diputazioa erakunde irekiagoa, erakargarriagoa eta eraginkorragoa egitea; Gipuzkoak Europan izaera aktiboa eta nazioarteko erreferentziatzko nodoekiko harremana izatea; nazioartekotze prozesuetan indartutako Gipuzkoako ekonomia laguntzea; eta Gipuzkoa lurralde solidario eta engaiatu gisa bermatzea dira.

Diputazioaren lehentasunei jarraiki, NPParen lerro nagusietakoa suspertze ekonomikoa izango da, besteak beste, Gipuzkoako enpresen 120 nazioartekotze proiektu bultzatuz eta legegaldien amaierarako % 34ko esportazio maila lortuz; ETE-en eta OTEBen kasuan bereziki. Industriak lurraldean dituen pisu eta trakzio-gaitasuna kontuan izanik, sektore honekiko ardurak ere lehentasuna izango du.

NPParen oinarri ere izango dira Gobernantzari, Lehiakortasunari eta Prospektibari dagozkion sareak eta hobekuntza praktikak, baita Etorkizuna Eraikiz proiektuari dagozkion (enpresako langileen, genero berdintasunaren eta kontziliazioaren, zahartzearen eta hirugarren gizarte sektorearen, industria kulturalen) laneko sail zehatzak identifikatu eta bilatzea ere.

Gipuzkoako erreferentzia sail nagusia Europa izango da; bereziki, Diputazioak Eurocities, 40 langintza talde baino gehiagoko Europako politika publikoen sare globalean, sartzeko kudeaketak eta Arku Atlantikoko Hirien Konferentzia hasi ondoren.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoaberri.eus/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota.do?id=3230&idioma=es&detalle=1>



KOHESIO POLITIKA

> **Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeko ikasleentzako mugikortasun beken deialdi berria**

Akitania Berriko Zentro eta Unibertsitate Komunitateko lankidetzaren barnean, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko LLEEak 2017/2018 ikasturterako ikasleen mugikortasunerako beka deialdi berria abiatu du.

Bigarren beka deialdi honen helburua, bereziki, Euskadiko eta Nafarroako ikasleen Akitania Berriko Unibertsitateetarako mugikortasuna bultzatzea da. Zehazki, hartzaileak Gradu (bigarren ikasturtetik aurrera) eta Masterreko Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako ikasleak izan daitezke eta lehentasuna, honako zentroetako ikasleek izango dute: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa edo Nafarroako Unibertsitatea. Euroeskualdeko unibertsitate guztietako Doktoretza ikasleek ere beka eskuratu ahal izango dituzte. Egoitza eskatzen den unibertsitateak Akitania Berria eskualdean egon beharko du kokatuta.

Deialdi honetan 30 beka emango dira eta onuradunak 300 euroko diru-laguntza jasoko du 5 hilabetean zehar. Diru-laguntza hori beste batzuekin bateragarria da (Erasmus, etab.).

Hautagitzak aurkezteko epea 2016ko martxoaren 31n ireki da. 2017ko maiatzaren 17an amaituko da.

Informazio gehiago:

<http://www.aquimob.fr/>



> “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” gazteentzako argazki-lehiaketaren edizio berria

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak "Non ikusten duzu Europa Euskadin?" gazteentzako argazki-lehiaketaren 6. edizioa jarri du martxan euskal gazteriaren artean Europar Batasunaren ekarpena zabaltzeko helburuarekin. Horretarako, Euskadiko garapen sozioekonomikorako FEDER funtsak erabiltzen dira.

Euskadin erroldatutako 14 eta 25 urteko edozein gaztek parte har dezake lehiaketan. Puntuaziorik altuena lortzen duen argazkiarentzako saria Nikon D3300 Reflex argazki-kamera (edo antzekoa, eskuragarritasunaren arabera) eta 18-55 eta 55-200 VR objektiboak izango dira. Bigarren postua lortzen duen argazkiak GO PRO HERO Kamera Digitala jasoko du. Ospearen saria izendatua, web orriko jarraitzaileen boto gehien jasotzen dituenarentzat izango den hirugarren sariak, eBook-a jasoko du.

Parte hartzeko epea 2017ko apirilaren 23an amaituko da.

Informazio gehiago:

www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus



> El empleo trasfronterizo en la Euroregión Nueva Aquitania-Euskadi-Navarra, a examen

Mugakideen arteko enplegua eta enpresen arteko harremanak bultzatzeko helburuz, joan den martxoaren 14an "Empleo AE: Europa indartzen: Akitania-Euskadi Euroeskualdeko enplegu arropa" proiektua aurkeztu zen. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko LLEEak bultzatu du eta helburua Euroeskualdeko enplegu mugakidearen ikerketa diagnostikoa egitea da.

Ikerketa honen bidez, Euskadiren, Akitania berriaren eta Nafarroaren arteko enplegu mugakidearen egoeraren lehen ikuspegi orokorra izatea ahalbidetuko da; kuantifikazioa eta arazoak eta oztopoak identifikatzea ahalbidetuz. Gainera, egiazko enplegu mugakidea gauzatze bidean, enpleguko hiru merkatuen bateragarritasuna landuko da.

Proiektua Irungo Ficoba azoka-barrutian gauzatu zen eta hiru eskualdeetako ordezkariak izan ziren: Mikel Antón Eusko Jaurlaritzako Europar Gaietarako zuzendaria; Izaskun Goñi Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Enpresa eta Lan Politikarako zuzendari nagusia; Andde Sainte-Marie Akitania-Berriko Eskualdeko Kontseiluko Mendialde eta Artzaintzako eskualde kontseilaria eta Marc Moulin EELLko zuzendaria.

Proiektua 2017ko irailean amaituko da. 256.012 euroko kostua izango du eta Interreg V-A Espainia, Frantzia, Andorra (POCTEFA 2014-2020) programak ahalbidetzen duen Europako Eskualde Garapenerako Funtsaren (EEGF) % 65eko finantzazio partekatua eskuratuko du.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **“Move2Learn, Learn2Move”, europar gazteen ikaskuntza eta mugikortasuna bultzatzeko Batzordearen egitasmo berria.**

Europako Batzordeak egitasmo berria aurkeztu du Erasmus+ programaren baitan, gazte europarren ikaskuntza eta mugikortasuna babestea indartzeko: "Move2Learn, Learn2Move" deitzen da.

“Move2Learn, Learn2Move” programaren oinarrian, Europar Parlamentuak 2016an aurkeztutako ideia bat dago. Proposamena, munduko irakasleen sare handienaren bidez, hau da, eTwinning-en bidez ezarriko da; izan ere, sare hau Erasmus+ programaren baitan kokatzen da eta Europa osoko irakasle eta ikasleei elkarrekin proiektuak garatzeko aukera ematen die sareko plataforma baten bidez.

Ekimen hau abiatzeak 5.000 gazteri Europar Batasuneko beste herrialde batera, bakarka nahiz ikaskide guztiarekin batera, era jasangarrian bidaiatzeko aukera emango die; horrela, gainerako herrialdeen egunerokotasuna ezagutu eta ahal izanez gero, Internetez jadanik harremana izan/lan egin duten ikaskideak helmuga herrialdean bisitatu ahal izango dituzte.

Sarituak talde edo ikasgela batek eTwinning plataforman aurkeztutako proiektu hobereenen artean aukeratuko dira. Hautagaitza aurkezteko epea jadanik irekia izan da eTwinningen eta ekainaren 30ean itxiko da. Hautaketa abuztuan amaituko da eta sarituek datorren urtearen amaierara arteko epea izango dute bidaiatzeko erabilteko.

Move2Learn, Learn2Move” Batzordeko bi oinarri nagusiekin lerrokatzen da: europar gazteriaren jakin-min eraberritzea, eta EBeko biztanleriaren mugikortasuna erraztea.

Informazio gehiago:

https://ec.europa.eu/transport/themes/social/move2learnlearn2move_en



> Euskadi 30 eskualde europar hartzen dituen VANGUARD INITIATIVE elkarteko partaide izango da

Eusko Jaurlaritzak ontzat eman du Euskadi eskualdeen arteko lankidetzaz indartuz industria hazkundera bultzatzeko interesa duten 30 eskualde europar hartzen dituen "Vanguard Initiative" elkarteko partaide izateko proposamena.

Lankidetzaz aldi baten ondoren, partaideek, sareari izaera juridikoa emango dion eta EBeko finantzazioa jasotzea nahiz helburuak lortzeko zerbitzuak eta ondasunak kontratatzea ahalbidetuko dion irabazi-asmorik gabeko elkarte osatzeko beharra nabarmendu dute.

Elkarte zuzenbide belgikarrari jarraiki sortuko da eta Euskadi, Tampererekin, Flandriarekin eta Emilia-Romagnarekin batera, bazkide fundatzaile izatea proposatu da.

Informazio gehiago:

<http://irekia.euskadi.eus/eu/news/37557-euskadi-formara-parte-nueva-asociacion-vanguard-initiative-que-agrupa-regiones-europeas-consejo-gobierno-2017>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> EBren aurrekontua: inbertsioak eta estatu bakoitzaren ekarpena (Europar Parlamentua)

Batasunaren aurrekontuaren inguruko zenbat alderdi kontsultatzeko multimedia aplikazioa: zenbat bideratzen duen EBk herrialde bakoitzarentzat eta zein arlotarako, zenbateko ekarpena egiten dion herrialde bakoitzak batasunaren aurrekontuari...

Informazio gehiago:

<http://www.europarl.europa.eu/news/es/news-room/20141202IFG82334/el-presupuesto-de-la-ue-explicado-inversiones-y-contribuci%C3%B3n-de-cada-estado>

> Erromako Itunaren 60. urteurrena (Europako Batzordea)

Europar Batasunak Erromako Itunaren sinaduraren 60. urteurrena ospatzeko web orria sortu du.

Erromako Ituna Europako Komunitate Ekonomikoa (EKK) sortzeko erabili zen Europar Batasunaren sorrera ituna da eta sei herrialde hartu zituen (Belgika, Alemania, Frantzia, Italia, Luxenburgo eta Herbehereak) merkataritzaren bidez hazkunde eta integrazio ekonomikoa lantzeko.

Web orrian, Itunaren inguruko informazioaz gain, eskuragarri daude bideoen eta argitalpenen bidezko Batasunaren 60 urteko atzera begirakoa eta 60. urteurrenerako Europa osorako antolatutako ekintza guztien deskribapena.

Informazio gehiago

https://europa.eu/european-union/eu60_en



> Etorkizunez betetako gazteentzako proposamen europarrak (Red Europe Direct)

Gazteek eta orokorrean biztanleek Europar Batzordearen helburuak ezagutzeko Jucker-en lehenetsun gida interaktiboa. Argitalpena Europe Direct sarearen hainbat bulegok bultzatuko ekimena izan da.

Informazio gehiago:

<http://www.europedirectbizkaia.org/guia-interactiva-propuestas-europeas-para-una-juventud-con-futuro/>

> Hainbat modutako eta mugaz gaindiko ibilbideen kalkulagailua (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea)

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak hainbat modu eta mugen arteko ibilbideen kalkulagailua aurkeztu du. Aplikazio hau eta 2015ean aurkeztutako bidaiariaren informazio ataria bateragarriak dira eta biztanleei Euroeskualdean eskuragarri diren garraiobide guztiekin beren ibilbideak antolatzen laguntzeko balio du.

Informazio gehiago:

<http://www.transfermuga.eu>

> INTERREG (Interact) terminoen hiztegia

Itzulpen glosarioak INTERREG Programetan gehien erabilitako terminoen definizioak dakartza. Gainera, termino bakoitzaren 12 hizkuntzetarako itzulpena dakar.

Informazio gehiago:

<http://www.interact-eu.net/library#1174>



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **SUDOE. SUDOE 2014-2020 Gunekeo proiektuen bigarren deialdia** ([+info](#))
- **ERASMUS+. Oinarrizko ekintza 3: Politiken erreforma lagundu — Hezkuntzaren, trebakuntzaren eta gazteriaren bidezko gizarte barneratzea** ([+info](#))
- **Akitalia Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea 2017ko proiektuen deialdia** ([+info](#))
- **EaSI 2017. Europa barneko mugimendua sustatzeko mugaz gaindiko elkarteak eta elkarlana laguntzeko programa** ([+info](#))
- **EaSI 2017. Deklaratu gabeko lanaren esparruan ekimenak garatzeko deialdia** ([+info](#))
- **HORIZON2020. Berrikuntzaren europar hiriburuari 2017ko Saria** ([+info](#))
- **COSME. Klusterren nazioartekotzea** ([+info](#))
- **COSME. Ekintzaile gazteentzako Erasmus-a** ([+info](#))
- **CREATIVE EUROPE. MEDIA azpiprograma. Europako zinematografia filmen nazioarteko salmenten agenteei laguntza** ([+info](#))
- **HORIZON 2020. CLEAN SKY 2 deialdia** ([+info](#))
- **Laguntza Boluntariora Ekimena. Laguntza Bidaltzen eta laguntza jasotzen duten erakundeentzako Laguntza Teknikoa** ([+info](#))
- **Europa Batzordeko Herri-Babesa Mekanismoa. Herri-babesaren eta itsasoko kutsaduraren inguruko prestatze eta prebentzio proiektuak** ([+info](#))